

## BESTELAKO XEDAPENAK

### SEGURTASUN SAILA

## 27

*AGINDUA, 2020ko abenduaren 15ekoa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segur-tasuneko sailburuarena, joko-operadore diren pertsona fisikoei bitarteko telematikoen bidez erlazionatzeko betebeharra ezartzen diena Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko jokoaren arautzeko agintaritzarekin dituzten izapideetan.*

Araugintzaren ikuspegitik, administrazio-prozeduretan bitarteko elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera arautzen duen abenduaren 18ko 232/2007 Dekretua onesteak berebiziko bultzada eman zion Administrazio Elektronikoari.

232/2007 Dekretuaren 4.4 artikulua ezartzen zuen administrazioak ezin izango zuela herritarrak behartu bitarteko elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabiltzera, administrazio-prozeduretan jarduteko; baina, era berean, gaineratzen zuen prozedura elektronikoen arautzean, administrazioarekin bitarteko elektronikoen bidez bakarrik komunikatzea nahitaezkozat joko zela baldin eta interesdunak pertsona juridikoak edo pertsona fisikoen taldeak baziren eta, euren gaitasun ekonomiko edo teknikoak, jarduera profesionala edo egiaztatutako bestelako arrazoiak zirela eta, beharrezko bitarteko teknologikoetara sartzea eta horiek eskuratzea bermatuta bazeukaten.

232/2007 Dekretuan jada jasotzen zen aurreikuspen hori otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak jaso zuen gerora, Administrazio Elektronikoaren dekretua bigarren aldiz aldatzen zuen apirilaren 21eko 55/2020 Dekretuaren bidez aldatutakoak. Hain zuzen ere, dekretu horren 28. artikulua ezarri zuen batzuetan, administrazioak, erregelamendu bidez, berarekin harremanetan bitarteko elektronikoen soilik erabiltzera behartu gintzakeela. Noiz? Interesdunak pertsona juridikoak edo pertsona fisikoen kolektiboak direnean eta garbi dagoenean badituztela beharrezko bitarteko teknologikoak. Hori garbi egon daiteke haien ahalmen ekonomikoarengatik edo ahalmen teknikoarengatik, lanbidearengatik edo behar bezala arrazoitutako beste motiboren batengatik.

Bestalde, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, komunikazio elektronikoa sartu zuen, oro har, administrazioaren eta administrazioaren arteko harremanetan. Lege horrek administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko betebeharra ezartzen du, pertsona fisikoak izan ezik; izan ere, pertsona horiek uneoro aukeratu ahal izango dute administrazio publikoekin beren eskubideak eta betebeharrak bitarteko elektronikoen bidez erabiltzeko komunikatzen diren ala ez, salbu eta 14. artikuluko c), d) eta e) puntuetan deskribatutako kolektiboetako kide badira, edo, erregelamendu bidez, administrazioek haiekin harremanak bitarteko elektronikoen bidez izateko betebeharra ezartzen badute.

Euskadiko Autonomia Erkidegoan, Jokoaren Erregelamendu Orokorra onartzen duen uztailaren 27ko 120/2016 Dekretuaren 4.3 artikulua gaitasuna ematen dio Eusko Jaurlaritzan jokoaren arloko eskumena duen saileko titularrari, agindu bidez, ezar dezan Jokoa Arautzeko Agintaritzarekin harremana bitarteko elektronikoen bidez izateko betebeharra, zenbait prozeduratarako eta pertsona fisikoen talde jakin batzuentzat, haien gaitasun ekonomiko, tekniko eta dedikazio profesionalarengatik. Edo beste arrazoi batzuk, egiaztatuta gera dadin baliabide elektronikotarako irispidea eta eskuragarritasuna badutela. Era berean, uztailaren 27ko 120/2016 Dekretuaren azken- xedapenetatik lehenengoak ahalmena ematen dio jokoaren arloan eskumena duen saileko titularrari hura garatzeko eta betearazteko behar diren xedapenak emateko.

Gainera, uztailaren 27ko 120/2016 Dekretuak I. tituluko V. kapituluan jokoaren enpresa operadoreak arautzen ditu, eta 23. artikuluan ezartzen du pertsona fisikoei eta joko-jarduerak ustiatzen dituzten pertsona juridikoei baimena eman ahal izango zaiela joko-modalitateak antolatzeko, ustiatzeko eta jokoaren enpresa operadore legez inskribatzeko, baldin eta zenbait betekizun betetzen badituzte.

Jokoaren operadore diren pertsona fisikoek jarduera ekonomiko bat egiten dutenez eta, ondorioz, enpresatzat hartzen direnez, bidezkoa da hemen ezartzen zaien betebeharra, jokoaren arloko izapideei dagokienez Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin harreman telematikoak izateari buruzkoa.

Azaldutako guztia ikusita, eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Jokoaren Erregelamendu Orokorra onartzen duen uztailaren 27ko 120/2016 Dekretuaren 4.3 artikulua eta azken xedapenetako lehenengoak emandako eskumenak baliatuz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Jokoa Arautzeko Agintaritzaren eta joko-operadore diren pertsona fisikoen arteko izapide guztiak bitarteko elektro-nikoak soilik erabiliz egin daitezela ezartzea.

Bigarrena.– Bitarteko elektronikoak erabiltzean, Administrazioak administrazio elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan (Administrazio Elektronikoari buruzko dekretua bigarren aldiz aldatzen duen apirilaren 21eko 55/2012 Dekretuaren bidez aldatutakoa) zehaztutako printzipio orokorrak eta hizkuntza araubidea errespetatuko ditu.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, hargatik eragotzi gabe joko-operadore diren pertsona fisikoei banan-banan jakinaraztea.

Laugarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 15a.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburua,  
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.